

ELIKAGAIEN XAHUTZEA MURRIZTEAK KLIMA ALDAKETA ARINDUKO LUKE

Posted on 14/04/2016 by Naider



Nekazaritza jardueren berotegi-efektuko gasen % 14 arte ezabatu liteke 2050erako elikagaien kudeaketa eta banaketa hobearen bidez, [Klima Eraginaren Ikerketarako Potsdam Institutua](#)ren oihartzuna: [The Guardian](#). Nekazaritzak 2010ean berotegi-efektuko gasen % 20 arte isuri zuen, Prajal Pradhan txostenaren egileak dioenez, elikagaiak galtzea eta xahutzea prebenitzeak berotze globala arintzen lagunduko luke

Munduan ekoizten diren elikagaien % 30 eta 40 artean ez da kontsumitzen, dela uzta ondoren hondatzen delako, dela banatzaileek edo kontsumitzaileek bota egiten dutelako.

Dakigunez, hondakin horiek handiagoak dira herrialde garatuetan, eta arazoa larriagotu daiteke goraka ari diren ekonomiek, hala nola Txina, Mendebaldeko kontsumo-ohiturak guztiz hartzen dituztenean. Elikagaien xahutzea murrizteak eta soberan dauden elikagaiak hobeto banatzeak behar dutena ez dutenen goseari aurre egiten lagunduko luke, eta berotegi efektua murrizten ere lagunduko luke

There are no comments yet.